

# DROGETEN

**ITTURRI**

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria  
2024ko ABENDUA · 339 zenbakia



**Jesús Rodríguez,  
egurra musika  
bihurtzen**

# Etorri

# Eskolabari

# ezagutzera

**Eraikuntza bakarra**



**Gela berriztuak**



**Langileria egonkorra**



**Metodologia kooperatiboak**



[www.eskolabari.com](http://www.eskolabari.com)

943179036

[matrikula@eskolabari.com](mailto:matrikula@eskolabari.com)

Gaia: Gabon-kantua

## Gabon Gabon zeta

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Gabon Gabon zeta  
errosa kaltzeta,  
Jesus jaio da-ta  
jo daigun kisketa!



**Euskal  
Birusa  
Elkartea**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)  
[www.drogeteniturri.eus](http://www.drogeteniturri.eus)

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Eneritz Aranburu,  
Estibalitz González,  
Nahia Ruiz Albizuri  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA**

**ETA MAKETAZIOA:**  
Dorleta Vidal.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Alba Rodríguez.

**LAGUNTZAILEAK:**

Patxi López, Mallabiko Eskola,  
Valentin Mugarza eta Nahia Rojo.

**ARGAZKIAK:**

Mertxe Alonso, Javi Arrieta, Arriguri,  
Berbalagun, Emilio José Carral,  
Asier Gomez, Estibalitz González,  
Mallabiko Eskola, Mamen Losada,  
Valentin Mugarza, Marga Pérez,  
Alba Rodríguez, Jesús Rodríguez,  
Alex Turrillas eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Maren Aguirre, Manex Prieto  
eta Piedi Eizagirre.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Mertxe Alonso Fernandez · Berrande (Galizia)

# “Hemen beste erritmo batean bizi naiz, eta mesede egiten dit”

Mertxe Alonso Fernandez ermuarrak urtebete darama Berranden (Ourense) bizitzen. Tatuatzailea da, eta Galiziako herri txiki eta lasai horretan topatu du bere gustuko bizilekua.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

## Zergatik joan zinen Ermutik?

Normalean lanagatik dela erantzuten dut, baina osasun mentalagatik ere izan zen. Ermua txikia den arren, jende asko bizi da bertan, eta handik atera behar nuen: mendi erdian bizi, jende gutxiko herri batean, lasaitasunez inguratuta... Hau ezberdina da, beste erritmo bat, eta buruarentzako oso onuragarria izan zait.

## Erabaki zaila izan zen?

Bai eta ez. Nire inguruko inor ez zen harritu, bazekiten noizbait gertatuko zela. Plan osoa aitarekin egin nuen, lagundu nahi baitzidan, batez ere Galiziara etortzearekin, hemengo baita. Baina gaixotu egin zen

eta gero pandemia etorri, beraz, dena bertan behera utzi nuen. Bera zendu eta bi urtera, hobeto nengoelarik, erabakia hartu eta planari ekin nion berriro. Onartu behar dut zaila izan zela amatxo “bakarrik” lagatzea, batez ere amona ez zegoelako oso ondo eta ezin izango nuelako lagundu. Baina ama izan zen horretan gehien tematu zena, eta beti egon izan da nire ondoan, bultzadak ematen.

## Zein lan egiten duzu Galizian? Nola hasi zinen horretan?

Tatuatzailea naiz. Karrerako azken urtean hasi nintzen lantxoak egiten, eta nire lagunak izan ziren lehen esperimenduak. Haiek gabe ez nintzateke hemen



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**  
Lege eta  
kontu aholkularitza  
Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**JULEN**  
JULEN IZARRA  
GARRAIOAK  
Bidegain kalea 1  
48240 BERRIZ  
636 958 339

**AMAIA  
HARATEGIA**  
  
Bertoko Okelak  
Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
Ermua



**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



Mertxe Alonso txango batean.

egongo! Formakuntza bat egin nuen baina, egia esan, YouTuben eta praktikarekin gehiago ikasi nuen ikastaro hartan baino. Berehala oso gustura sentitu nintzen teknikarekin. Hasieran beldur asko nuen tatuaje horiek perfektuak ez ote ziren izango, baina gerora, konfiantza gehiagorekin, konturatu nintzen nire lana izango zela.

### **Nolako da bizi zaren herriko jendea?**

Kar-kar. Ez naiz oso ona harremanetan eta lanean ezagutzen dudan jendea da nire erreferentzia bakarra. Gehienetan jende oso polita aurkitzen dut. Hala ere, ezberdintasunak ikusi ditut euskaldunekin, batez ere hitzordu eske datozenean, kar-kar. Euskaldunok oso zakarrak garela esan ohi dute, baina, ikusten dudanagatik, Instagram bidez hitz egiten didatenean txanda eskatzeko, galiziarrek gatzgabeagoak dira.

### **Zelan moldatzen zara galegoz?**

Ez dut askotan galegoz hitz egiten, egia esanda inoiz ez! Ederto ulertzen dut, umetatik etorri izan naizelako Galiziara, eta txikia nintzenean gehiago hitz egiten nuen. Badakit tontakeria bat dela, baina orain lotsa ematen dit. Nire helburuetako bat da galegoari ekitea, nire familiaren hizkuntza baita, eta oso polita gainera!

### **Zer egiten duzu aisialdian?**

Lehen margotu egiten nuen baina, lanean hasi nintzenean, konturatu nintzen jada ez nuela niretzat marrazten: marrazkiak tatuaje batean nola geratuko ziren irudikatzen nuen beti. Psikologoarekin hitz egin ostean, koloretzatzeko koaderno bat erosi nuen, diseinatu baino, margotzeko. Bestalde, pelikulak eta telesailak ere oso gogoko ditut eta beti nago bat edo beste ikusten, diseinatzen egon edo ez. Uste dut

asko gustatzen zaizkidala nire mundutik ateratzen nautelako, beste batean sartzeko.

### **Zerbait botatzen duzu faltan?**

Noski. Banekien batez ere lagunak eta ama botako nituela faltan, baina pentsatzen nuena baino sentimentalagoa naiz. Ez naiz beti ateratzen den edota hitz egiten hasten den laguna, eta askorentzat horrelako harremanak zailak edo "txarrak" dira, baina batera sozial txikia dut eta nire lagunak nirekin daude hori jakin arren. Oso harro nago haietaz, naizen bezala maite naute-eta. Espero dut guztiek nik bezalako zortea izatea horretan, egunero ditut gogoan-eta. Nire amarekin bezala. Ez gara egunero kontaktuan gauden horietakoak, baina goxoago gabiltza joan naizenetik. Beste etapa bat da, ezta? Harremanak eraldatu egiten dira eta uste dut hori ari dela gertatzen amarekin: oso gustukoa daukat elkarrekin sortzen ari garena. Lanari dagokionez, Kristina botatzen dut faltan, berarekin egiten bainuen lan Ermuan: sorpresa ikaragarria izan zen bere garaian, eta ez dut bizitza bera gabe irudikatzen!

### **Noiz Ermura buelta?**

Ba... inguruko jendea asko botatzen dut faltan baina Ermua... kar-kar. Noizbehinka bertara noa, batez ere aitona-amonak eta lagunak ikusteko, baina ez da nire lekua. Orain dela gutxi bertara joan nintzen, tatuaje estudio batean berriro lan egiteko, eta zoragarria izan zen, batez ere Kristinarekin bueltan egotea. Baina aste horrek erakutsi zidan nire lekua Galizia dela. Agian ez Galizia bera, baina bai bertan dudana lasaitasuna.

# “Bokazioz naiz luthierra eta gitarrak modu autodidaktan egiten ikasi dut”

Jesús Rodríguez Cid · Luthierra



Ia hogeita hamar urte daramatza Jesús Rodríguez Cidek Galizian. Formazioz kazetaria den arren, egurra lantzeko bere umetako pasiotik abiatu eta gitarra elektrikoak egitearena ofizio bihurtuta bizi da Pontevedrako kostaldean, Poio herrian. Modu autodidaktan ikasita, laster hamar urte etorriko dira gitarra-bozeto, egur usain eta sortzeko ilusio artean bizi dela artisau hau.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

## Kazetaritza ikasi zenuen...

Bai, baina ez nintzen kazetari gisa aritu, eta gehiago egin nuen alde teknikitik, diseinu grafikotik eta maketaziotik. Ermuan *Torreta Gaztea* aldizkarian kolaboratu nuen, ondoren Santanderren beste aldizkari batean aritu nintzen...

## Baina luthierra zara...


Bokazioz, e! Eta txiripaz, nolabait. Nik beti izan nuen gitarra jotzeko gogoia; bolada batez jotzen ikasten aritu nintzen, eta nire gitarrak konponketak behar izan zituenean, luthierrera eraman beharrean, nik egitea pentsatu nuen. Aldaketak egin nizkion, emaztea eta alabak lagunduta pintura kendu genion, berriro margotu genuen... Jotzeko moduan geratu zen eta soinua zuen. Prozesuarekin hainbeste gozatu nuen, gitarra bat egitea erabaki nuela: zortzi hilabete behar izan nituen, lanean ari bainintzen, eta tarte libreak aprobetxatzen nituelako. Amaitutakoan funtzionatzen zuela eta soinua zuela ikusi nuen, eta zurezko zati soil bat izan ez dadin behar dituen parametroen barruan egitea lortu nuen. Animatu eta gure etxeko behealdean hasi nintzen lanean, oinarri-oinarrizko erremintekin: eskuila, zerra eta ezer gutxi gehiago. Dena eskuz. Lagunek beren gitarrak ekartzen zizkidaten konpontzeko eta puntu-puntu jartzeko. Horretan

nenbilenean itzelean gozatzen nuen. Ondo moldatzen nintzela ikusten nuen. Gitarra jotzea erraza egiten ez zitzaidan modura, kontuaren beste alderdi hau askoz interesgarriagoa iruditzen zitzaidan: gauza nintzela sentitzen nuen eta tutorialen laguntzarekin, liburuak bilatuz eta beste batzuek prozesu hau edo bestea zelan egiten zuten erreparatuz, ikasten joan nintzen, ahalegin handiz eta modu autodidaktan.

## Gitarragintzarako, ze egur mota erabili ohi da?

Badira egur tipikoak, gitarra elektrikoek mundu honetan betidanik ezagunak direnak: lizarra, astigarra, kaoba eta ebanoa, eta haltza ere. Diapasoiak egiteko, ezkerreko eskuarekin soka sakatzen duzun zati hori, hau da, nota definitzen duten trasteak dauden zatia, egur tropikalak erabiltzen dira, normalean jatorri

**“Egur batzuk erresonantzia handiagokoak edo txikiagokoak dira, eta guztiek dute bereizten dituen tinbre bat, egurrak ze soinu izango duen adierazten duena”**



Jesús bere tailerrean, gitarra egiteko prozesuaren momentu ezberdinetan. ALBARODRÍGUEZ



Ezkerretik hasita, Jesús Rodríguez, Fito abeslaria erdian, eta Jesús en bikotekidea den M<sup>a</sup> José eskuman.

afrikarrekoa edo indiarrekoa. Dena den, froga asko egin ditut normalean erabiltzen ez diren zurekin, konparatzeko eta zer eman dezaketzen ikusteko.

### **Egur motak ba al du eraginik musika-tresna baten soinuari?**

Bai, noski eragiten duela. Egur batzuk erresonantzia handiagokoak edo txikiagokoak dira, eta guztiek dute bereizten dituen tinbre bat, egurrak ze soinu izango duen adierazten duena. Horrek dakar soinu baxu, ertain edo akutuen presentzia handiagoa egotea, edo agian soinu-luzera handiagoa izatea, notak airean denbora

gehiago irautea ahalbidetuz. Elektronikak bere pisua du, baina zurak ere.

### **Zura lehortzea garrantzitsua da. Zu zeu arduratzen zara prozesu horretaz?**

Egokiena norberak lehortzea da, merkaturatzen den guztia ez dakizulako beti zenbat denbora daraman moztuta. Garrantzitsua da leku aireztatu eta hezetasunik gabeko batean pilatuta gordetzea, eta lehortzeko denbora aldatu egiten da piezaren lodieraren arabera: zentimetro bakoitzeko urtebete utzi behar da sikatzen, eta zenbat eta gehiago laga, orduan eta hobeto erantzungo dute zurezko piezek. Biolinetan, esaterako, zurak hamabost urtetik gora izatea baloratzen da.

### **Gitarra bat egiteko, ba al duzu kanon zehatzik? Non uzten dio zure sormenari hegan egiten?**

Leku askotatik uzten dio. Azkenean gitarra bat matematika eta fisika da. Soken ibilbidea edo haien arteko distantzia parametro matematikoak dira. Gainera, traste bakoitza elkarrengandik distantzia milimetriko batera jarri behar da, nota eman dezan. Ume batentzat bada gitarra, distantzia horiek berriro kalkulatu behar dira, bere balioak mantendu ditzan eta notak entzun daitezzen. Hori bete egin behar da, gainontzekoa norberaren irudimena da: nahi baduzu, puru kaxa batean egin dezakezu gitarra bat. Dibertigarria da gauzak egitea zer gertatzen den probatzeko; esaterako, tiradera batean eginda daukat gitarra bat, eta funtzionatzen du. Elektriak bat hutsunerik gabeko egurra da, eta soinua elektronikako piezek ematen diote. Kable bat anplifikadore bati entxufatu eta nahi duzuna entzunarazten du: punka, metala, bluesa...

**Trastelekuak partikularrentzat**



**Biltegiak enpresentzat**

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua  
621 325 477 / info@lekubox.com  
www.lekubox.com

**Plan B**

Coffee Lounge      Gin & Beer



**Torrealday**

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA      ERMUA





## “Etxeko behealdean hasi nintzen lanean, oinarri-oinarrizko erremintekin: eskuila, zerra eta ezer gutxi gehiago. Dena eskuz.”

**Zuk eginiko gitarrak pertsonalizatzen dituzu? Sinatzen dituzu? Stradivariusak bezala, Rodríguez bat identifika liteke?**

Logotipo bat daukat, herensuge hegal moduko bat, eta hainbat lekutan jartzen dut: bistan, afinatzeko larakoetan, egurrean txertatuta edo grabatuta... Sinadura ezkutuago joaten da. Logoa bistan ez duena ere badut, eta gitarra desmuntatu egin behar da topatu ahal izateko.

**Gitarraren bat eskatu al dizu musikari ezagunen batek?** Bai, pare bat ditut Fito Cabrales, Fito eta Fitipaldis

taldeko abeslariaren eskuetan. Gainerakoak musikari amateurrak dira, eta une jakin batean zerbait zehatza nahi izaten dute: badakite ze forma eman nahi dioten eta ze soinuz izatea nahi duten. Bere bizitzan zehar laurogei gitarra erosi dituen eta zer nahi duen ondo dakien jendea. Hori oso ondo ematen zait: bezeroa eskatzen ari zaidana interpretatu eta egur-pieza batera eraman bai bere jotzeko modua bai gitarrari atera nahi dion soinuz mota.

**Eta nola interpretatzen duzu eskatzen dizuna?**

Lehenik eta behin, jotzen ikusten den bideo bat eskatzen diot: alde batetik, gitarra gorputzera nola erortzen zaion erreparatzen dut, pua eta eskuineko eskua non jartzen duen, mastari nola eusten dion... ergonomia kontuak. Bestetik, zer musika mota jotzen duen edo gustatzen zaion galdetzen diot, hor ere estetika jakin batzuk definituta daudelako.

**Zuen etxeak, Jesús, egur edo bernizaren usaina du?** Egurrarena, egurrarena!



**LA FORJA KAFETEGIA**

Zuri egokitzen den odontologia  
La odontología que se adapta a ti

**SAN PELAYO**  
DENTISTAS Y ODONTÓLOGOS

DR. OLATZ GARCÍA ARREGUI

**PADI** 943 17 04 04  
Programa  
Ayuda Dental  
Infantil  
Salud Bucal

info@odontologiasanpelayo.com  
San Pelayo Zaharkalea 5  
48200 Ermu (Bizkaia)

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu  
Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

# “Disko honetan kantak eraikitzen ibili naiz, kantek ni eraiki beharrean”

Izaro · Abeslaria



Izaro abeslari mallabitarrak *Gabonetan* diskoa aurkeztu berri du Durangoko Azokan, Gabonekin lotutako zortzi abestiz osatutako lana. Ilusioa, esperantza eta osasuna dira disko honen ardatzak, eta abenduaren bukaeran zuzenean entzuteko aukera egongo da Kurasaalean.

Testua **ESTIBALITZ GÓNZALEZ ETA DORLETA VIDAL**

Argazkiak: **ARRIGURI**

**Zortzi abestiz osatutako diskoa kaleratu berri duzu, Gabonekin lotuta. Zerk bultzatu zaitu gai honekin soilik lotutako abestiak sortzera?**

Banuen gogo horrelako zerbait egiteko, baina momentu egokiaren zain nengoen. Hain urte ederra bizi izan dugu aurten, hain ederra izan da 2024a *Cerodenero*-rekin, hainbeste sendotu da lan-taldean osatzen dugun familia, hain gara kontziente gertatzen ari zaizkigun gauza onez... Gozatzen ari gara, oso eskertuta, elkarri begira begirunez eta maitasunez. Oso kontziente gara gauzak ez direla betiko, eta orain daukagun hau oso-oso preziatua dela, eternalak sentitzen gara, dena dago ondo, eta gorde nahi genuen esker on eta ospakizun hau

guztia, betiko hilezkortu. Hau zen momentu egokia, garen familia honen *prime*-a.

**Aurretik egindako diskoekin alderatuta, erregistro aldaketa egin duzu. Gustura sentitu zara?**

Ezberdina izan da batez ere idazteko prozesua. Normalean kantua da lehenengo eta gero ni, ez dut kontrol-kontziente gehiegi izaten sormenean, kantua nonbait dago eta jaiotzen da, berak badaki nola irten nahi duen eta pixka bat botaka egitea bezala da, kanal bat bezala naiz nire kantekiko. Kantuak datoz eta beraiek naramate. Kantak datoz eta beraiek dakarte gaitegia, baina kasu honetan alderantziz izan da prozesua, gaitegia zetorren aurretik eta gero kantak. Kantak eraikitzen ibili naiz, kantek ni eraiki beharrean. Asko disfrutatu dut, sormen kontzeptua guztiz ezberdina izan da. Esperimentu bitxia izan da gaitegi konkretuei kantatzea, oso aberasgarria niretzat. Harrapaketan ibili gara, baina alderantziz.

**Eta diskoa ezagutzera emateko sortutako bideoekin?**

Argi neukan gure lan-talde familia hau gordeta utzi nahi nuela. Sekula ez gara izango orain garen bezalakoak, eta amets bat da niretzat hau gordeta izatea, zaharrak garenean ikusi ahal izateko. Maite ditut hainbeste, maite dut bizitzen ari garen hau, eraiki dugun hau, eta

**"Gozatzen ari gara, oso eskertuta, elkarri begira begirunez eta maitasunez"**





hain garbi gordeta gelditu ahal izatea bizitzan zehar ikusteko opari izugarri bat da niretzat. Estetikoki ere bilatu dugu hori, orotzapenen kutxa bat, bodegoi bat bizirik. Irribarre egiteko klipak dira, konpainia egitekoak, ongi-etorri klipak.

**Nori zuzenduta dago disko hau?**

Ilusioari.

**Umeei ere? Nola sortu zen Pirritx, Porrotx eta Marimototsek diskoan parte hartzearen kontua?**

*Olentzero* idatzi nuenean argi neukan Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin abestu nahi nuela. Niretzat liluragarria izan da: haiei begira eta haiek entzuten

egoten zen ume hura heldua da, eta orain haiekin kanta diezaiokie beste ume guztiei. Ez al da magikoa? Izaro txikiari egin diodan oparirik politenatarikoa, ziur. Argazkia daukat egongelan jarrita, laurok tarta jaten, hauxe da bizitzaren gailurra!

***Olentzero* singlea atera zenuen aurretik, eta Durangoko Azokan disko osoa aurkeztu duzu. Zein harrera izan du?**

Oso harrera polita. Umeak txundituta daude abestiarekin eta gurasoak eta irakasleak ere bai. Ilusioa partekatzea baino gauza ederragorik ez dago!

**Zein adineko jendea gerturatu zitzaizun Azokan? Zein da Izaroren publikoa?**

**"Gure kantuek ukendu bezala funtziona badiezaiokete norbaiti, gure lana eginda egongo da"**

**"Haurtzaroko oroitzapen ederrak ditut, oso haurtzaro zorionsua izan nuen, eta jaiak ere halakoak"**

Denetarik, ezingo nuke perfilatu gure publikoa, oso anitza da, oso ezberdina, denetik. Zahar, ume eta gazte. Han eta hemengoak. Baina badute zerbait komunean: jende ona dira, jatorrak.

**Diskoan *Falta zarenetik* kantua dago. Mahai buelta askotan falta da baten bat, eta zure abestian tristura horri aurre egiteko, zorionari eta pozari eskatzen diezu besarkatzeko. Pertsona askorentzat kantu hunkigarria izango da, ezta?**

Bai, egun konplikatuak izaten dira familia askorentzat, familia gehientzat. Gure kantuek ukendu bezala funtziona badiezaiokete norbaiti, gure lana eginda egongo da. Dolua ez omen da inoiz txikitzen, bizitza handitzen omen da doluaren inguruan, eta sinistu nahi dut hori ari garela egiten, bizitza handitu dolua airosoago eramateko.

**Egin duzun diskorik intimistena dela esango zenuke?** Ez, gaitegi propioak dira intimistenak. Disko hau ilusiotik eta ilusiora jaio da.

**Aurretik beste abeslari askok abestu diete Gabonei. Zuk lan honetan zertan jarri duzu azpimarra: neguan, argietan, zoriontasunean, osasunean...?**

Elurra beti izan da niretzat zerbait oso iradokitzailea, eta negua oro har, beraz, presentzia dezente du klimatologiak disko honetan ere. Eta esango nuke ilusioa dela hitza batez ere: ilusioa, esperantza eta osasuna.

**Diskoaren karatulan esker bereziak ematen dizkiezu amari eta aitari. Nola oroitzen dituzu txikitako Gabon**



**jaiak? Gabonak gustuko?**

Haurtzaroko oroitzapen ederrak ditut, oso haurtzaro zorionsua izan nuen, oso etxe ona, eta jaiak ere halakoak. Mimos, adeitasunez eta artez hezi gintuzten eta ezin naiz eskertuago egon. Gabon bueltan, elurra egiten hasten zenean, eta txokolata, eta eskolara ezin joatea elurra zelako, eta etxea apaintzea, goxo jatea, elkarrekin abestu eta dantza, pijama epel-epelak... Zorte handia izan dut. Gainera nire urtebetetzea ere izaten da egun hauetan, eta izugarri gustatzen zaizkit urtebetetzeak.

**Kantutegi tradizioaletik kantu bat aukeratzekotan, zein?**

"Urte barri baaarri, dekonak ez dekonaaaari, nik ez dekot eta neeeeeuri".

**Zure buruan dabilen hurrengo proiektua?**

Gaur gaurkoz, Gabonetako kontzertu bereziak dauzkat presentean, Kursaalean, abenduaren 22an eta 23an. Super berezi datoz! Gero *Cerodenero*-ren bira bukaera, BEC!-en, 2025eko maiatzaren 31n, oso-osoa potente, eta gero atsedena.



**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**  
**PALACIOS SM**  
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com  
**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

GURE  
GARIA

GURE  
OGIA

ORAIN  
OGI  
INTEGRALA  
ere bai

EUSKAL  
OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA  
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN  
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA

ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN  
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

ERMUA

PANARRA - Probaleku, 6

hazi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,  
NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,  
DESARROLLO RURAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

# Gabonetako erosketa gida



Adin guztietarako kirol-jantzi eta oinetakoak.  
Ekipazioak, estanzazioa, jaietarako eta ezkondu aurreko agurretarako arropak, kartelak, fiyerrak, giltzatak, eta askoz gehiago....

Zubiaurre 14 - ERMUA  
943 030 448



**F. PASCUAL** Arane, 6  
Tif.: 943 20 61 64  
Fax: 943 20 85 43  
20600 EIBAR  
(Gipuzkoa)



**VIRGINIA PASCUAL**  
Zubiaurre, 36-38 (behea)  
Tel y Fax: 943 17 68 28  
48260 ERMUA (Bizkaia)

MUEBLES DE COCINA  
INTERIORES

[www.cocinaspascual.com](http://www.cocinaspascual.com)

Adin guztietarako poltsak, karterak, gerrikoak, aterkiak, maletak, osagarriak eta opariak.



**SAGARDUI**  
poltsak

943 17 03 05  
b.sagardui@gmail.com

Zubiaurre 20  
48260 Ermua (Bizkaia)



Bitxi-denda  
Erloju-denda

# Senén

1978

Tailer propioa

*Diseinuak eta kalitateak,  
bereizten gaituzte*

San Pelayo zeh. 4 ERMUA (Bizkaia) • joyeriasenen.com • joyeriasenen@gmail.com

Ferreteria

**ANBOTO**  
Burdindegí

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN  
KOPIAK** ere  
egiten ditugu



943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

# Kokko



943 38 33 65 ☎ 639 39 00 17  
Zubiaurre 16-18 behea  
48260 ERMUA (Bizkaia)

Eskaerak:   
www.kokkomoda.com

# Quetzal



Zubiaurre 2 · 48260 ERMUA | 943 17 00 65  
www.quetzalmoda.com

# ALTALDI

Correduría de Seguros, S.L.

ermua@altaldi.com

# INMOBILIARIA J.S.

www.inmojs.com  
943 17 18 02  
676 21 23 75

info@inmojs.com



Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02



**Zorionak  
eta urte berri on!!**

688 61 98 96  
zeharkale 12 bajo  
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666

EGOITZ FORMOSO col.1675

*hurrengo orrian  
jarraitzen du*





# Gabonetako erosketagida



Komentukua 2 · Ermua · 943 170 277

Calvin Klein  
Punto Blanco  
DIM  
Playtex  
Tommy Hilfiger  
Freya  
John Frank...

Comercio Izagirre



Erdikokale 3 · ERMUA  
943 57 03 12 / 648 85 05 38

**DG**  
Horacio Decoración  
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 · Ermua  
943 03 15 80 / 688 61 06 38  
www.dghoraciodecoracion.com

LIBRERÍA XIRIPOT LIBRERIA

Erdikokale 8 · ERMUA  
943 17 25 12 688 71 31 89

Zorionak eta urte berri on!

**nane**  
moda

c/ Torrekua, 2 | Ermua  
Tel.: 943 17 34 66

**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO

Probaleku 7 · ERMUA  
943 17 46 51

**MUNAY**

Travesía Cantabria 2 · ERMUA

munay\_ermua  
Munay



ek!

Eibarko ...eta kitto!  
Euskara Elkarteko  
hedabidea

dkt

Debabarreneko  
Komunikazio  
Taldea



**Bideak eginez**

**JASONE OSORO  
ETA ZALOA URAIN  
IDAZLEA ETA MUSIKARIA**

Kultura arnasten da Eibarko Coliseo antzokian. Goi-mailako artistak igo dira bertako eszenatokira eta han elkartu ditugu Debabarreneko bi kultur sortzaile handi: Jasone Osoro eta Zaloa Urain. Idazketa eta ahotsa erabiliz asko adierazi dute biek, eta oraindik asko dute esateko.

**Testua eta argazkiak:** Ekhi Belar.

**Bideoa:** Yanire Sagredo.

**Z**uentzat zer da emakumea eta kultur sortzailea izatea?

**Zaloa Urain:** Badirudi bi titulu ezberdin direla, baina azkenean ni neu naiz. Emakumea naiz eta baita sortzailea ere. Ez da bilatu dudan zerbait, horrela etorri zait.

**Jasone Osoro:** Bai, zerbait berezkoa. Nik ere antzera sentitzen dut neure burua. Emakumea naiz, baina bai sentitu izan dut edo sentiarazi didate etiketa moduko bat dela. Orduan, alde batetik, emakume bezala bai sentitu dut nahi dugun tokira iristeko oztopo gehiago ditugula eta, iristen garenean ere, emakume bezala hartzen gaituztela, ez egiten dugun sormen lanarengatik bakarrik; eta bestetik, sentiarazi didate emakumea naizelako iritsi naizela hainbat tokitara. Kontraesana dirudi. Gorputzaren zama sentitu izan dut. Urte asko egon naiz naizena aldarrikatzen eta orain bakeak egiten ari naiz: Jasone Osoro naiz, harro nago eta hau da nire ibilbidea literaturan.

**Z.U.:** Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak izate hutsagatik. Adibidez, orain dela gutxi kontzertu bat lotzeko deitu zituzten eta euren arrazoia zen emakume bat nahi zutela eszenatokian. Bai, emakumea naiz, baina ez deitu emakumea naizelako bakarrik.

**Nolabait esatearren, kupoa betetzeko?**

**J.O.:** Niri ere gertatu izan zait. Oraindik antolatzen dira ‘Euskal literatura eta emakumeak’ moduko saioak, baina ‘Euskal literatura eta gizonezkoak’ ez da antolatzen, ezta? Lehen liburua aurkeztu nuenean prentsako titular batek ‘Emakumea eta gaztea’ zioen. Badira gauza batzuk gizonezkoek ez dituztenak bizi. Gaur ere hemen gaude ez sortzaileak garelako baka-



**“Gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta kontua ze guapa agertzen nintzen izatea. Bale, baina zer esan dut?”**

**“Barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat”**

**JASONE OSORO** ELGOIBAR, 1971

Informazio Zientzietan lizentziatu ondoren, kazetaritza lanetan eta telebistan jardun zuen hainbat urtetan aurkezle eta gidoilari gisa, egunkari eta aldizkarietan zutabeak idazteaz gain, baina literatura da bere bizitza. ‘Tentazioak’ izan zen bere lehen lana eta harrezkero hainbat eleberrri, saikera eta biografia idatzi ditu haur, nerabe zein helduentzat, sariak ere eskuratuz.



**“Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak garelako”**

**“25 urte hauetan abeslari bezala hain ikusgai egotea gainean eraman dudan oso zama latza izan da”**

**ZALOA URAIN** EIBAR, 1976

Eibarko Kokein taldeko abeslaria da. Taldeak 25 urte bete ditu aurten eta ‘Bidea Da Helmuga’ disko berriaren argitarapenarekin ospatu dute urteurren berezia. Bere ahotsa euskal musikaren ikurretako bat da eta erreferentea izan da musikan trebatu nahi izan duten askorentzat. Sortzeaz eta abesteaz biziki gozatzen du, eta eszenatoki gainean bizi den magia gustatzen zaio.

rrik, baizik eta emakume sortzaileak garelako, eta gizonezko bati ez liokete esango kulturgintzari buruz berba egin nahi dutenik gizonezkoen ikuspegitik. Hori oraindik ez da gertatu. Beraz, horrek esan nahi du oraindik gure kasua arraroa dela. Zergatik? Urte askotan plaza publikoa gizonezkoena izan delako.

**Z.U.:** Eta jarraitzen du horrela izaten!

**J.O.:** Edozer egiten dugula ere epaitu egiten gaituzte emakumeak izate hutsagatik eta ez dakit gizonezkoek hori bizi duten. Gizonei beraien lanarengatik epaitzen zaie, baina ez gizon baten gorputzean jaio direlako.

**Z.U.:** Musikan egindako ibilbide guztia lau gizonezkoekin partekatu dut eta beraiei eskatu zaiena eta niri eskatu zaidana oso ezberdina izan da beti. Adibidez, itxuraren aldetik. Badirudi guk eder egoteko behar bat-edo dugula eta horrela sentitu izan dut. Kasu askotan ustez laudorioak direnak entzun ditut, “oso polita da” eta horrelakoak, baina horrek zer zirikusi du egiten ari naizen lanarekin? Eta niri esaten badidazu, besteei zergatik ez diezu berdina esaten? Taldekideak aita eta ama izan garen kasuetan ere, gure rolen inguruan antzera gertatu da. Badirudi emakume eta ama izate horretan sortzaile izateari utzi beharko geniokeela amatasuna bizitzeko, baina taldekideen kasuan inoiz ez dut entzun horren inguruan galdetu dietenik.

**J.O.:** Lehen, itxuraren kontua aipatu duzu eta, nire kasuan, atzean egiten dut lana, bakardadean, ez dut talderik behar eta ez naiz publiko aurrean aritzen, are gutxiago zu bezala, talde bateko abeslaria izanik, baina bai gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta jendeak aipatzea ze guapa agertzen nintzen eta horrelakoak. “Bale, baina zer esan dut?”. Gizon bati hori esango liokete? Agian bai, ez dakit, baina argi dago oso ezberdin ikusten gaituztela, kanpoko begirada oso ezberdina dela.

**Z.U.:** Telebistan agertzen garenean betiko komentarioa da: Ze guapa zeunden! Inoiz moskeatu egin naiz eta esan didate ea zergatik haserretzen naizen gauza polit bat esateagatik, baina nire eginbeharra ez da hor polita agertzea, nire sorkuntza erakustea baizik, ez neure burua. Egia da nire kasuan oso ikusgai nagoela eta hori 25 urte hauetan gainean eraman dudan oso zama latza izan da.

**J.O.:** Gainera, irudi fuerte bat proiektatzen duzu, emakumeengan hain ohikoa ez dena. Uste dut, gainera, rol hori nahita hartzen dugula. Publiko aurrean agertzea ez da erraza eta mutilak beharbada horretara ohituago daude, hala hezi dituztelako, baina gu beti hezi gaituzte bigarren plano batean egoteko, periferian. Besteak zaintzeko, ez zaintzeko hainbeste gu. Orduan, bat-batean demaseko indar bat proiekt

“

**“Helmugak izan ditzakegu, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela”**

**‘Bidea Da Helmuga’ kaleratu du Kokeinek. Bideaz gozatzea izan duzue helburu?**

Uste dut hori izan behar dela helburu finkoa. Helmugak izan ditzakegu eta nora heldu nahi dugun tokira ilusioz begiratzea ondo dago, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela eta horretaz gozatu, landu, mimatu eta batzuetan sufritu behar dugula. Disko berriarekin maiteminduta nago eta toki guztietatik bidearen inguruko gauzak eta hausnarketak iristen ari zaizkidala iruditzen zait (barreak).

**ZALOA URAIN**

”

tatzen duzunean, nahiz eta gero errealia ez izan, hori ere epaitu egiten da.

**Z.U.:** Niretzat zama latza da. Atzera begira, agian bai proiektatu dut pertsona indartsu baten irudia. Hori bai, gero zera esan didate: “Ez zara horrelakoa”. Ez dakit ogro bat naizela uste duten edo. Ez naiz ogro bat, baina indartsua banaiz. Zein puntutara arte izan den autosegurtasuna lortzeko jarrera bat? Ez dakit, baina egia da urte askotan oso gogorra egin zaidala. Nire gogoa atzean agertzea eta inork ez ikustea zen. Abesteaz aparte, nire itxura epaitzen zen, edo nire izaera momenturen batean. Eskerrak urteekin gauzak ikasten diren eta norberak bere buruarekin bakeak egiten dituen. Orain momentuan, zentzu horretan bake pixka bat daukat neure buruarekin eta pixka bat paso egiten dut, baina oraindik ere emakumeok horrelako gauzak entzuten ditugu eta, tamalez, entzungo ditugu.

**Belaunaldi berriek horrelako egoerak bizitzen jarraituko dutela uste duzue?**

**Z.U.:** Biok antzeko adineko alabak ditugu, ezta? Nire esperantza da atzetik datozen belaunaldi berriek



beste modu ezberdin batean hartzea hau guztia. Horri begira egoten naiz: alde batetik, euren irudia eta emakume zentzua zaintzeko nahia dago eta, aldi berean, ez edukitzea zamarik edo komentatzen ari garen etiketarik.

**J.O.:** Gure alabek gurekin alderatuta duten abantaila bat da guk genituenak baino ispilu gehiago dituztela. Arlo ezberdinetako emakumezko erreferenteak dituzte eta hori asko da. Badute non begiratu. Eskubidea eta aukera edukitzeaz gain, gogoa edukitzeko beharrezkoa da erreferenteak izatea, hau da, emakume bat ez dakit nora iritsi dela edo zerbait lortu duela ikustea. Gu hasi ginenean, orain dela ia 30 urte, oso gutxi zeuden. Nazioarte mailan tira, baina Euskal Herrian, musikan eta literaturan, zenbat emakume zegoen?

**Z.U.:** Egon, beharbada batzuk egongo ziren, baina asko eta asko etxean sartuta eta ez oholtza gainean. Eta berdin, egongo ziren idatzi bai baina publikatzen ez zutenak ere.

**J.O.:** Ez naiz oso datu zalea, baina batzuetan tesuingurua ulertzen laguntzen dute. 1982.urte inguru-



ruan, Euskal Idazleen Elkartearen sortu zenean, idazleen %9 bakarrik zen emakumezkoa eta gaur egun %36 inguru da. Oraindik ez gara erdira ere iristen. Egia da 2020tik hona bazkideatu diren idazleen %50 emakumezkoak direla. Poliki-poliki aldatzen doan zerbait da. Niretzat garrantzitsuena da emakume hauen ahotsak indartsuak direla, zeresana dutela, eta sorkuntza mailan gauza eder eta on asko egiten ari direla. Hori ikaragarritzko erreferentzia da orain hazten dauden horientzat.

**Z.U.:** Lortu dugun gauzarik onena eta indartsuena plazaratzen hastea da. Indartsu sentitzea eta “nirea zergatik ezin da beste honek egiten duena bezain ona izan?” pentsatzea. Etxean hori egin dugun zailtzarrik ez dut, baina plazaratzea beste gauza bat da. Horrela, gazteei erreferente bezala pentsarazi ahal izan diegu. Orain dela gutxi Zea Maysekin ‘Elektrizitatea’ abestiaren bertsio berria abesteko aukera izan dut, eta zeinen polita izan den hain adin eta estilo ezberdinetako emakume abeslariarekin elkartzea sentsazio eta energia berdinak sentituz. Hor jarri da agerian musikan gauden emakumeok zenbat

gauza egiten ditugun. Geratzen zaiguna plazaratzea da, baina plazaratu ez bakarrik emakumeak izateagatik, baizik eta egiten dugun lanarengatik.

**Inoiz izan duzue kultura arloko ibilbidea amaitzeko gogoia?**

**Z.U.:** Zortez, ez. Taldekideekin oso zorteduna izan naiz beti eta hor babesa sentitu dut. Ez da babesa behar izan dudalako, baizik eta talde moduan zerbait indartsu sortu dugulako. Espero dut eurek ere niganik babes hori sentitzea. Momenturen batean pentsatu izan dut agian egunen batean ez dudala edukiko hain indartsua edo dena delakoa izateko gogoia, batzuetan igortzen dudana irudia ez baitator bat sentitzen dudanarekin. Agian indartsua eman dezaket, baina batzuetan goxo-goxo egon nahi dut. Momentu horietan sentitu izan dut hau guztia larregi dela niretzat, baina bestela ezetz esango nuke.

**J.O.:** Musika taldeen kasuan, aipatu duzun babes hori oso garrantzitsua dela uste dut. Konplizeak edukitzea. Lan horretan jarraitzeko gogoia eta energia ematen dizu. Idazle izatea oso ezberdina da. Bakarkako lana da. Orain sare gehiago dago,



sare sozialen bitartez elkar ezagutzeko aukera gehiago dago, baina nire sasoiak ez zegoen horrelakorik eta nire ibilbidea oso bakartia izan da. Bakardadeak pisatzen du. Pentsa: emakumea, gaztea (orain jada ez naiz hain gaztea), bakardadea eta askotan egurra ematen dizutela sentitzea. Behin baino gehiagotan pentsatu dut idazten jarraitzea, baina niretzat bakarrik. Publikatzea, proiektu bat defendatu beharra eta nolabaiteko irudi bat proiektatu behar izatea... Hori egiteko energia falta izan zait noizbait, nekeza da. Beste alde batetik, barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat eta beste guztia onartu egiten dut, mamu hori tarteka agertu arren.

#### **Zertarako sortzen duzue?**

**J.O.:** Ez dut esango sortzeak sendatu egiten duenik, baina bai uste dut gauza asko ulertzen eta kanpora ateratzen laguntzen duela. Bolada batean ezer sortu gabe egoten banaiz, izaeran eragiten dit. Zitalago nago. Gero, egoera desblokeatzen denean, automatikoki hobeto sentitzen naiz. Beharbada horregatik sortzen dugu, badelako era bat katarsi moduko bat egiteko eta musikaren edo letren bitartez gauzak kanpora ateratzeko.

**Z.U.:** Niri, adibidez, abestien letrak idazteak asko balio dit barruak askatzeko. Zentzu horretan gauza

bitxia gertatzen zait. Disko berria kaleratu dugu berriki eta abesti batzuk entzun ditudanean orain konturatzen naiz gehiago kantua idatzi nuenean zer pentsatzen ari nintzen. Gauza horiek deskolokatu egiten naute: nola bota nuen hori eta zein puntutara arte ez nintzen kontziente hori botatzen ari nintzela? Orain bertan sortzea ezinbesteko gauza bat da niretzat. Esan duzun bezala, ez badut sortzen, igarri egiten zait.

#### **Nola bizi duzue zuen sorkuntzen hartzaileekin duzuen harremana?**

**J.O.:** Idazleok ez ditugu kontzertuak eskaintzen, baina gure boloak eskoletan egiten ditugun saioak izaten direla esan ohi dut. Saio horietatik demaseko txutearekin irteten naiz, irakurlearen maitasuna jasotzen duzulako nolabait esatearren. Estimatzan dute zu bertara joatea, zu ezagutzea, liburutik gus-tatu zaiena eta gustatu ez zaiena partekatzea... Oso aberasgarria da.

**Z.U.:** Imajinatzen dut adrenalina puntu bat dagoela hor. Batzuetan zaila izaten da hortik jaistea! Niri gertatu izan zait kontzertu indartsu baten ostean taupadak jaisten saiatzea eta ezin. Gero, biharamun emozionala edukitzen dut. Kontzertuan bota eta sentitu duzun guztiarekin indarra hartzen duzu eta, gero, biharamun hori dator.



**J.O.:** Ikusle bezala ere, kontzertu indartsu batera joan naizenean oso ohikoa da nik hori sentitu izan badut, musikariek zer sentituko duten pentsatzea. Demaseko txutea imajinatzen dut, baina gero hori kudeatzen jakin behar da.

**Z.U.:** Sortzea gustatzen zaigu, baina ez guretzat bakarrik, jendeari erakustea ere gustatzen zaigu-eta. Horrek gero prezio bat du: industrian murgiltzea. Ezetz esaten duenak, gezurra dio. Etxean abesten eta jotzen pozik egongo banintz, primeran, baina nik hartu dut egiten dudana azaleratzeko erabakia eta jendearengana iristeko gogo horretan prezio batzuk ordaintzen ditut. Hori bai, bueltan demaseko erantzuna jasotzen dut. Horrek guztiak oso bizirik sentiarazten nau. Eguneroko gauzeekin aurrera eta atzera gabiltza, eta kontzertu batean publikoarekin hartu-emana sortzen denean oso bizirik sentitzen naiz. Momentuaz gozatzen dut.

**Nola kudeatzen duzue sorkuntzaren eta kultur-industriaren eskakizunen arteko oreka hori?**

**J.O.:** Alaba jaio zenetik idaztetik bizitzeko erabakia hartu nuen eta profesionala naiz. Horrek disziplina ekarri dit. Kalitatezko denbora sorkuntzari eskaini ahal diot orain, ez lehen bezala, beste lan bat nuen-eta. Aldaketa ona izan da, baina egia da batzuetan presioa sentitu dudala. Adibidez, ea bi urtean behin,

“**Bideari eustea eta irautea garrantzitsua eta arrakastatsua dela uste dut**”

**‘Arrakasta’ da zure azken lana. Zein da zure ibilbideko arrakastarik handiena?**

Oso harro nago eta uste dut arrakastatsua dela bideari eustea, hor irautea eta parte sentitzea. Batzuetan erraza izan daiteke nekatuta zaudela esatea eta beste gauza bat egiten hastea, baina beste alde batetik badago zerbait sorkuntzara lotzen zaituena eta pozik nago neure buruari erakutsi diodalako gai naizela. Hori garrantzitsua eta arrakastatsua da niretzat.

JASONE OSORO



gutxienez, liburu bat ateratzen dudan, nahiz eta liburuen salmentaz bakarrik ez bizi eta beste gauza batzuk egin izan. Dena dela, horrela martxan zaude, eta irudimenak eta sormenak akzioa behar dute. Hori ere entrenatu egiten da eta, zenbat eta gehiago sortu, orduan eta aktiboago zaude. Sorkuntzak kalitatezko denbora eta lana behar du. Toki batera edo bestera iristearen edo ez iristearen arteko aldea. Horra iristeko egiten den lana izaten da. Lanik egin gabe, ez da ezer lortzen.

**Z.U.:** Nik ez dut horrenbesteko zorterik, ez naiz musikari izatetik bizi. Nahiko nuke, baina ez, beste lan bat daukat eta gustura egiten dut gainera. Sarritan komentatu dut hori taldekideekin, lagunekin eta musikaz bizi diren batzuekin. Batzuetan bai sentitu izan dut bigarren mailako musikaria naizela. Azkenean, denbora gehiena beste lan bati eskaintzen diot eta bizitzeko behar dudan dirua ez da musikatik iristen. Hori bai, musikaz bizi direnek beti esan didate hori burutik kentzeko. Dena dela, bere alde onak ere baditu. Esan duzun bezala, inspirazioa ez da bat-batean etortzen. Gogoratzen dut pandemian Miren Narbaiza musikari eta lagunak esaten zidala sasoi proposa zela bakarkako diskoa ateratzeko, baina nik esaten nion justu orduan, egoera horretan, ez zitzaidala iriteten. Gauza beltz baino beltzagoak iriteten zitzaizkidan bakarrik. Banuen denbora, baina presio horrek

ez zidan lagatzen. Presioa berez ez da txarra, martxan eta aktibo jarri ahal dizu, baina nire kasuan, musikaz bizi ez naizenez, ez dut presio hori sentitzen. Beraz, Kokeinekin egiten duguna horrela sentitzen dugulako egiten dugu.

**J.O.:** Izaera kontua ere bada. Inoiz ez nuke esango sorkuntzatik bizi den norbait hortik bizi ez den beste bat baino idazleago edo musikariago denik. Are gehiago, batzuek sorkuntza erromantizatuta dute eta pentsatu izan dut batzuentzat sorkuntzatik bizitzea kalterako zela. Dirua tartean sartzen baldin bada, kalterako izango balitz bezala. Bakoitzak ahal eta nahi duena egiten du, eta dena dago ondo.

## Laburrean

### Liburu bat?

J.O.: 'Termita', Garazi Albizuarena.

Z.U.: Anariren 'Gari eta goroldiozko' dut irakurtzeko.

### Disko bat?

J.O.: 'Ilunpean jai duzu', Txoteko Ezpata.

Z.U.: Nirea, ezin dut besterik esan orain.

### Zer eskatu diozue Mari Domingiri?

J.O.: Inspirazioa.

Z.U.: Sorpresa.





Erdikokale argizatuta.  
Argazkilaria: Marga Pérez.

# 116 lagunek dihardute aurten

## Berbalaguneko mintza taldeetan

2024-2025 ikasturteak datu onak ekarri dizkio Ermua-Mallabiko Berbalagun egitasmoari, bai talde kopuruari dagokionez bai antolatutako ekintza kopuruari erreparatuta ere. Arduradunek gogorarazi dute urtarrilean matrikula zabalik jarraituko duela.

Testua **DORLETA VIDAL**

Urriari jarri da martxan ikasturte honetako Berbalagun kanpaina, eta antolatzaileak pozik daude aurtengo datuekin. Guztira hamabost talde sortu dira, horietako hamalau Ermuan: bederatzita talde arruntak dira, hau da, astean behin leku publiko batean biltzen direnak euskaraz hitz egiteko (iaz baino talde bat gehiago), eta beste bost taldeak gurasoz osatutakoak dira: bana Ongarai Eskolan, San Lorenzo Eskolan, Eskolabarri Ikastetxean eta San Pelayon, eta azkena Ermua CD futbol taldearen barruan. "Atal honetan nabarmentzekoa da San Pelayo Ikastetxean aspaldi ez zela Gurasolagun taldea sortzen, eta aurten talde handi bat sortu da, seguruenik bitan banatu beharko dena —azaldu du Berbalaguneko koordinatzailea den Juanmi Bravok—. Bestalde, aipatzekoa da ere Ermua CDn guraso talde batek euskara praktikatzeko konpromisoa hartu duela, seme-alabek futbol-partidak jokatu behar dituzten egunetan".

### Kanpaina berezia Mallabian

Mallabian martxan jarraitzen du iaz zegoen taldeak, eta urtarrilean deialdi berezia egingo da goizez talde bat sortzeko, "badaudelako interesa adierazi duten hainbat lagun", azaldu du Bravok.

Ermuko eta Mallabiko taldeak batuta, 116 parte-hartzaile daude gaur egun Berbalagunen (106 Ermuan eta 10 Mallabian), eta horrek adierazten du egitasmoa "sendotu" egin dela herri bietan, esan du Bravok.

Taldeetan jarduteaz gain, Berbalaguneko kideek hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera dute. "Ermuan egiten den ekintzarik kopurutsuena hileroko pintxo-lagun izaten da —esan du Bravok—, eta aurten Gaztainerrek ere sekulako arrakasta izan du". Urtarrilean zehaztu gabe dagoen tailerra burutuko da, eta berritasun bezala, otsaila aldera "Ermuko grafitiak ezagutzen" bisita gidatua egingo da Institutuarekin elkarlanean, Euskaltegiko eta



Institutuko ikasleei zuzenduta.

Mallabian, bestalde, ekintza kopurua bikoiztu egin da iaztik hona, eta "Mallabitarrok egina" saioez gain, joskintza tailerraren bigarren zatia egingo da aurten. Bestalde, martxan jarri den "Plazan dantzan" tailerlean zeuden 20 plazak bete direnez, eta itxaron zerrenda dagoenez, "urtarrilean beste talde bat jarriko da martxan seguruenik", jakinarazi du Bravok. Era beran, "Ez esan!" galdera-erantzunen jokoak ere jarraipena izango du aurten.

Berbalagun euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko programa da.

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

arrai97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

arrai@arrai97.com | Pol. Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
BODEGAS Y VINO  
nitida  
T.943176075

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

# Yogurinha Borovak eta Akrata Kristik ikuskizuna eskainiko dute Lobianon

Sortuko Dira egitasmoaren barruan, *Bingo!* ikuskizuna eskainiko dute Ermuan Yogurinha Borova eta Akrata Kristi artistek abenduaren 27an, ostirala, 19:00etan. Euskal Birusak antolatutako ekitaldi hau doakoa izango da, eta bertaratutakoek hainbat sari irabazteko aukera izango dute.

Testua **DORLETA VIDAL**

Lobiano Kulturguneko areto nagusia jaigune bihurtuko da 2024ko azken ostiralean, abenduaren 27an, hain zuzen ere. Izan ere, Yogurinha Borova drag queen bilbotarrak eta Akrata Kristi artistak bingo musikatua egingo dute bertan, eta bildutakoen arratsaldea girotuko dute, musika, abesti eta koreografia ezberdinei esker.

Euskal Birusa Elkarte Kulturala da ekitaldi honen antolatzailea, eta berea Sortuko Dira egitasmoaren baitan kokatuta dago, euskarazko sortzaileei eta performanceei tartea egiten diona.

## Sariak banatuko dira

*Bingo!* ikuskizun "ganberroa" da, antolatzaileen esanetan, adin guztietako ikusleei zuzenduta dagoena, eta sarrera doakoa izango da. Bertarutzen direnek bingoan jokatzeko aukera izango dute eta, barre algaren artean, sari ezberdinak irabazi ahal izango dituzte, linea edo bingo egiten lortzen dutenean.

*Bingo!*k ordu eta erdiko iraupena du gutxi gorabehera, eta Ermuko Udaleko Euskara Sailak diruz-lagundutako saioa da.

ABENDUAK 27 Ostirala  
19:00 DOAN  
LOBIANON

**BINGO!**

YOGURINHA BOROVA ETA AKRATA KRISTI

Euskal Birusa Elkarte

SORTUKO DIRA

AYUNTAMIENTO DE ERMUJA DIRAZKO UDALA

# “Uretako pertsona naiz, bertan nago ondoen”

Asier Gomez · Igerilaria



Hiru urte zituenean ekin zion igeriketari Asier Gomezek (Ermua, 2003), eta 2016an Eibarrera joan behar izan zen entrenatzen jarraitu ahal izateko. Ordutik bertan dihardu, eta gaur egun Euskal Herri mailako txapelketetan parte hartzen du. Horrez gain, igeriketako begiralea eta entrenatzailea da, eta Salbamendu eta Sorospeneko kirol-teknikaria.

Testua **DORLETA VIDAL**



## Zenbat entrenatzen duzu?

Astelehenetik larunbatera entrenatzen dut, 2 ordu edo 2 ordu eta erdiko saioetan, eta egunaren arabera entrenamendua ezberdina izaten da: astelehenetan distantzia luzeko entrenamenduak egiten ditugu (400 metrotik 3.000 metrotara bitartean); asteartean eta ostegunetan, abiadura lantzen dugu; asteazkenetan, erritmoak; eta ostiraletan eta larunbatetan muturreko entrenamenduak egiten ditugu: ariketa pilo bat, atsedena txikiak. Horri esker gorputza noraino heldu daitekeen ikus dezakegu. Bestalde, egunero noa gimnasiora ordu erdiz gutxienez, eta dominadak, sentadillak eta banku press-ak egiten ditut batez ere.

## Denbora asko igarotzen duzu uretan...

Bai, hiruzpalau ordu egunean, hau da, 30 ordu inguru asteen. Urak lasaitasuna ematen dit, eta gustura nago bertan. Beti esaten dut uretako pertsona naizela: uretatik kanpo ondo egon naiteke, baina uretan bezala, inon ere ez.

## Zer behar da igerilari ona izateko?

Teknika ona izatea ezinbestekoa da. Hortik aurrera, batzuk distantzia luzeetan jardun nahi dute, eta beste batzuk nahiago dute abiadura landu.

## Eta zuk zer duzu gustukoa?

Ni proba luzeetan aritzen naiz, estilo guztietan: tximeleta, bizkar, bular eta crawl. Beharbada bizkarrez ibiltzen naiz gehiago, baina teknika hobetu beharra daukat estilo guztietan.

## Zeintzuk dira zure indarguneak eta ahulguneak?

Indargunea, indarra daukadala; ahulgunea, berriz,

**Zer da igeriketa estilo bakoitzetik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?**

**Tximeleta estiloa:** Gustatzen zait daramazun abiadura oso ezberdina dela. Ez du ematen, baina erritmo berezia du, sentazio ezberdina ematen dizu. Aldiz, ez zait gustatzen 50 metrotik gora asko nekatzen naizela, kostatzen zait erritmoari eustea.

**Bizkar estiloa:** Estilo honetan hankak mugitzen dira gehien, eta topera joan naiteke asko nekatu barik. Txarrena da ez dudala abiadura handia hartzen. Hori da hobetu behar dudana gauzetako bat, eta lantzen ari naiz.

**Bular estiloa:** Gustuko estiloa daukat, polita iruditzen zait eta ez diot kontrako ezaugarririk ikusten.

**Crawl estiloa:** Gustatzen zait, eta teknikoki hobetzen ari naiz.



Asier Gomezek (erdian) lehen postua eskuratu zuen Mutriku-Deba arteko Flysch Beltza igeriketa zeharkaldian, 2023an.

nire teknika ez dela perfektua, ez nago ezta hurbil ere!  
**Igerilekuan edo hondartzan igerian daudenen estiloari erreparatzen diozu?**

Bai, automatikoki irteten zait: burua nola mugitzen duten, besoen jarrera... Orokorrean jendeak ez du gaizki egiten, baina guztiek hobetu dezakete teknika. Dena den, igerilekura doaz, eta hori ere asko da!

**Gaur egun Euskal Herri mailako txapelketetan zabilta, kategoria absolutuan. Zer nolako emaitzak lortzen ari zara?**

Ondotxo nabil: lehen hamarren artean geratzen naiz beti. Aurreko asteburuan Euskal Herriko 3.000 metroko proba izan nuen, eta bigarren izan nintzen.

Abenduaren 27an, aldiz, Donostiako Nazioarteko Txapelketan parte hartuko dut.

**Eta zein izan da orain arte lortu duzun emaitzarik onena?**  
 Duela hiruzpalau urte hirugarren egin nuen crawl estiloko 800 metroko proban Euskal Herriko txapelketan, eta 2023an Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia irabazi nuen (Mutrikitik Debara).

**Zer moduz moldatzen zara itsasoan?**  
 Ondo moldatzen naiz, baina oso desberdina da. Bertan jende asko daukazu ondoan igeri egiten eta oso ohikoak dira ukabildakad eta ostikadak. Gainera, olatuek eta mareek eragina dute lasterketaren estrategian.

**Zein da zure helburua igeriketan?**  
 Espainiako txapelketara heltzea gustatuko litzaidake, eta bide horretan nago.

**KRABI**  
 Ilkapaindegia  
 Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

**FOTOKOPIAK**  
 KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
 HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
 PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
 FAX PUBLIKOA  
 INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 beheha 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**OSTEOPATIA**  
 Pablo Lucena

617 680 156  
 info@osteopatialucena.com  
 Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

**HARATEGIA - URDAITEGIA**  
**MIGUEL**  
 BERTAKO OKELAK  
 ETXEN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBLEKU 3 - 943 170565 ERMUA

Psikologia  
 Ongizate pertsonalerako zentroa

**GUZTIOK**  
 Nahia Rojo Bustindui  
 Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua  
 Hitzordua: 688 85 18 95

# Gasaren faktura aztergai

ETXEKO GASAREN FAKTURA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Gasaren fakturaren oinarritzko informazioa lege bidez araututa dago, baina ez du zehazten informazio hori zein formatutan eman behar den. Beraz, merkaturatzaile bakoitzak bere erara ematen du.

Gasaren faktura ulertzeko oinarritzko bi kontzeptu daude: merkaturatzailea eta merkatu erregulatua. Kontratatuta duzun merkaturatzailearen arabera, jakingo duzu merkatu askean edota erregulatuan zauden.

## Merkatu erregulatua

Lau merkaturatzaile soilik dira merkatu erregulatuko tarifa (ABT-Azken Baliabideko Tarifa) eskaintzen dutenak: Gas&Power, Curenergia, Baser eta Energia XXI.

Merkatu erregulatuan prezioak arautuak daude eta merkaturatzaileak mugatuak ditu fakturatu ditzakeen gehieneko eta gutxieneko prezioak. Muga horiek Espainiako Gobernuak finkatzen ditu.

## Merkatu librean

Merkatu librean kontratuaren baldintzak kontsumitzailearen merkaturatzailearen artean adosten dira eta aldiari aldiari, prezioak berrikusi egiten dira, kontratuan zehaztutako aldizkakotasunarekin. Gero eta gehiago, merkaturatzaileek kontratuaren baldintzak edozein unetan alda ditzaketela jasotzen dute kontratuarekin, eta,



ondorioz, komeni da arretaz jarraitzea gutun bidez, posta elektronikoz edo fakturan bertan bidaltzen dituzten komunikazioei.

Merkatuko baldintza normaletan, erregulatukoak baino merkeagoak diren tarifa libreak aurkitu ohi dira, nahiz eta beti dauden garestiagoak diren beste batzuk ere.

## Online konparatzailea

Jakin nahi duzu zenbat ordainduko zenukeen merkatu libreko konpainia batekin edo erregulatukoarekin? Sartu Espainiar Estatuko Merkatuen eta Lehiaren Batzorde

Nazionalak (CNMC) sortutako online konparatzailean, jakinarazi zein hornidura mota nahi duzun, posta kodea eta zure urteko kontsumo datuak eta berehala, zure profilari egokitutako gas edota elektrizitate eskaintza guztien berri emango dizu.



CNMC-ren online konparatzaileara lotura



[energia.debegesa.eus](http://energia.debegesa.eus)  
[agenda2030@debegesa.eus](mailto:agenda2030@debegesa.eus)  
943 82 01 10.

**ONLINE  
KONPARATZAILEAK GAS  
EDOTA ELEKTRIZITATE  
ESKANTZA GUZTIEN  
BERRI EMATEN DU**

## Mallabiko urmaela ezagutzen



Azaroaren 21ean, Mallabiko eskolako 3. eta 4. mailako ikasleok Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasle batzuekin eta irakasle batekin, Mallabiko urmaelera hurbildu ginen. Bertan urmaela nola egin zuten azaldu

ziguten, eta bertako animalia eta landareak aztertu genituen. Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleekin izandako hartu-emanak aberasgarria izan zen; ordu eta erdiko ibilbidetxoan ederto pasatu genuen!

## Liburutegira bisita



Azaroaren 28an Haur Hezkuntzako ikasleok herriko liburutegira joan ginen bisitan. Haur Hezkuntzako ikasle guztiak joan ginen: 2, 3, 4 eta 5 urtekoak. Eskolatik oinez irten ginen liburutegira eta

bertan hainbat ekintza egin genituen. Lehenengo, liburutegiko arduradunak, Iraidek, liburutegiaren funtzionamenduaren inguruan azalpenak eman zizkigun. Ondoren, irakasleak ipuin bat kontatu zigun guztioi. Amaitzeko, ipuin bat aukeratu eta "Ipuin kontalaria" martxan jarri genuen. Orain, astero, ikasle batek ipuin bat aukeratzen du liburutegian eta hurrengo astean gelakideei kontatzen die. Bukatu ostean, eskolara oinez bueltatu ginen.

## Learreta-Markina Mallabian ere, euskararen alde!

Urtero bezala, Abenduaren 3an ospatu genuen Euskararen Nazioarteko Eguna eta horretarako, egitarau berezia antolatu zen eskolan. Izan ere, egun horretan hizkuntzaz gain, nortasuna, historia eta etorkizuna ere ospatzen da.

Alde batetik, Egunean Behin deritzon galdera jolasean parte hartzeko aukera izan genuen aipatutako eguna baino sei egun lehenago. Jolas honen helburua, 3-5 galdera erantzutea zen eta egunean eguneko erantzunak buzoi batean sartu behar ziren. Epea bukatzean, erantzun zuzen gehien asmatzen zituen ikasleak sari berezia jaso zuten.

Bestetik, egunean bertan, herri-kirolez gozatzeko aukera izan genuen. Esaterako, txingak eramatea, txokor biltzea, igelaren jolasa eta sokatira, besteak beste.

Eguna borobiltzeko, arratsaldean euskarazko pelikula bat ikusi genuen, palomitak jaten genituen bitartean.

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez hitz egiten ez dutelako baizik".





**ZERMik**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

# Central tabernia



1962an Juan Losada Cadavid eta Filo Limia Prolek ezkondu barritan hartu zeben Valentin Okarizena izandako tabernia; goian zekan pisuan jaio ziran gerora bikotian hiru seme-alabak. Erdikokalian zeuala eta zer egokixa Central izena jartzia baino. Klase guztietako edarixak, kafe kompletua (patxarra eta purua lagun)... eta sukaldia bertan zekenez jateko kontuak be: pintxuak, lakoia, saltxitxak, arrautza-urusetan pasatutako txarri-belarririk... Etxeko espezialitatea: tripakixak garbantzuakin.



Raziñuetan zeramika zuriko ontzixuetan zerbiduta, egunian hamar kilotik gora emoten zitxuezen. Egun jendetsuetan prestatu bai hogeikiloko tripaki lapikokadia eta illuntzirako dana garbi! Plazan merkadillua zeuanian, harutz-honutz haundiko eguna izaten zan, merkatarixak bertan bazkaltzeko ohitura zekelako. 1988ko agostuan itxi zan eta, eraikin guztia ondoko etxiakin batera bota ostian, oso-osorik berreraiki eta 1992ko maiatzian Kalotx izenakin pub modura zabaldu zeben seme-alabek. 2010etik Pub Secreto's lez ezagutzen dogu.







NAHIA ROJO

## LAT bikoteak

**"Zerk eraman dezake bikote bat teilatu beraren azpian ez bizitzea erabakitzera?"**

"LAT bikoteak" terminoa entzun nuen lehen aldian, harremani etiketak jartzeko beste saiakera bat zela pentsatu nuen, etengabe sortzen diren hainbat kategorietako bat. Hala ere, harreman mota berri baten aurrean ote geunden galdetu nion neure buruari.

Hau hobeto ulertzeko, lehenik eta behin kontzeptua definitu behar dugu, pertsona askorentzat berria da eta. LAT, Living Apart Together-en akronimoa da eta bananduta bizitzea aukeratzen duten bikoteei egiten die erreferentzia, nahiz eta harremana egonkorra izan. Hau da, bi kideak etxe desberdinetan bizi dira, eta hori gerta daiteke bai auzo edo udalerri berean bizi badira, bai hiri desberdinetan bizi badira ere.

Baina, zerk eraman dezake bikote bat teilatu beraren azpian ez bizitzea erabakitzera? Arrazoiak askotarikoak izan daitezke: lan betebeharrak leku desberdinetan, familia erantzukizunak (adibidez, seme-alabak izatea aurreko bikoteekin), espazio indibidualak zaintzeko nahia edo, besterik gabe, bizimodu horren aldeko lehentasun pertsonala.

Niretzat, harreman mota honetan, interesgarriena da bikoteko kideek beren harremanari buruz hausnartu dutela eta bakoitzak zer espero duen besteari argi eta garbi jakinarazi diola. Zalantzan jartzen da bikote guztiek etxea partekatu behar dutenaren ideia.

Orduan, zeintzuk dira eredu honen abantailak eta desabantailak? Abantailen artean, bizikidetzaren eta eguneroko errutinaren ondoriozko gatazka gutxiago eman daitezkeela nabarmentzen da, bikoteko kide bakoitzari bere espazio pertsonala zaintzeko aukera emanez. Gainera, dinamika honek harreman orekatuagoa susta dezake, kalitatezko denbora elkarrekin eta eguneroko bizitzako alderdi guztiak partekatzea etengabeko presiorik gabe.

Bestalde, desabantailen artean dago eguneroko presentzia ez egoteak ziurgabetasuna eragin dezakela harremanaren egonkortasunari buruz edo, kasu batzuetan, bikotearen fideltasunari buruz. Egunero elkarrekin ez egotea erronka bat izan daiteke batzuentzat, gehien bat, hurbiltasuna konpromisoaren erakusle gisa baloratzen dutenentzat.

Hala ere, eredu hau guztiz bateragarria da oporrak, asteburuak eta aisia uneak elkarrekin izatearekin, maitasun lotura egonkorrari eutsiz, teilatu bera partekatu beharrik gabe.

Eta zu, animatuko zinateke LAT harreman bat izatera?

## EMILIO JOSÉ CARRAL

Ermuan jaioa duela 50 urte. Hiru anai-arreben artean, erdikoa. Bi seme-alabaorde ditu. Duela 10 urte hasi zen mendian ibiltzen eta gaur egun Artarrai Mendi Taldeko lehendakariordea da, Hiru Txikiak lasterketaren antolatzaileetako bat, eta Javi Alberdiren omenaldiaren sortzailea. Gaur-gaurkoz mendira begira bizi da.

Testua **DORLETA VIDAL**

### Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?

Oso traketsa nintzela kiroletan. Futbola gustatzen zitzaidan, baina aulkian lagatzen ninduten beti. Lehen ez zituzten zelaira ateratzen txarto jokatzeko zutenak.

### Ikasteko aukera izan zenuen?

Bai, ez neukan oso argi zer egin, eta Elektrizitatea ikasi zuten Armeria Eskolan, anaia nagusiak bezala.

### Esparru horretan egiten duzu lan?

Ez, urte batzuk eman nituen horretan, eta mantentze-lanetan, baina duela hamabost bat urte zenbakizko kontroleko makina erabiltzen erakutsi zidaten eta horretan dihardut orduetik.

### Zer da lan horretan gehien estimatzen duzuna?

Ez dela lan errepikakorra: plano bat ematen didate eta, programa baten bitartez, bertan agertzen den pieza atera behar dut.

### Eta gutxien...

Goizeko 5:00etan altxatu beharra!

### Noiz hasi zinen mendian ibiltzen?

Duela 10 urte inguru... Mendi taldeetan dauden kide asko desamodio baten ondorioz batzen dira taldera, edo bakarrik daudelako, eta ni ere halaxe gerturatu nintzen, kuadrillako lagun batek bultzatuta.

### Gogoratzen duzu lehen irteera?

Bai, Europako Mendietara joan ginen, eta mendian nabil orduetik.

### Zertan zabiltaza gaur egun?

Mendi-lasterketak egiten ditut batez ere: laburrak, 15-20 kilometrokoak, eta luzeak, 70-100ekoak. Eta tartean jarraitzen dut Artarrairekin mendi irteerak egiten ere.

### Zein da datozen hilabeteotan egingo duzun lasterketarik luzeena?

Apirilean Sierra Nevadako Ultra trailean parte hartuko dut: 101 kilometro eta 5.500 metroko desnibel positiboa.

### Zenbat lasterketa egiten dituzu urtean gutxi gorabehera?

Zortzi edo bederatzita inguru. Atzo lasterketetan ematen dizkizuten kamisetak ordenatzen ibili nintzen, eta 70 zenbata nituen!

### Badago egitea gustatuko litzaizukeena?



Emilio Balaitus mendian gaua igarotzeko prest, Europako Mendietan. EMILIO JOSÉ CARRAL

Asko daude. Esaterako, Transvulcania Ultra, La Palman.

### Mendira, nahiago duzu bakarrik joan, edo lagunduta?

Biak, baina asko gozatzen dut nire kabuz joaten. Urtero egun batzuk ematen ditut mendian, bakarrik: motxila, argazki kamera, eta 360 graduko bideokamera hartuta.

### Zer ematen dizu mendiak?

Gaur-gaurkoz, dena, eta daukadan denbora gutzia eskaintzen diot: entrenatzaileak agindutakoa bete, Artarraiko hainbat zeregin burutu, Hiru Txikiak antolatzeko bilerak, Javi Alberdiren memoriala, sare sozial ezberdinak elikatu...

### Etxeokoen babesa duzu?

Bai, ezinbestekoa dut! Haiekin ere mendira joaten naiz sarritan, eta neguan, autokarabana hartu eta Piriniotara joaten naiz: batzuetan haiekin, beste batzuetan bakarrik.

### Hamar urte eman dituzu mendian, nola ikusten duzu zure burua hamar urte barru?

Gustatuko litzaidake gaur egun egiten dudana berdina

egitea, eta jubilatzerakoan, karabanarekin alde batera eta bestera ibili.

### **Bidaia zure gustuko?**

Bai, Costa Rican, Panaman, Marokon eta Europako hiriburu askotan egon naiz, besteak beste. Gaur egun, Kanadara eta Argentinara joango nintzateke.

### **Denbora eskaintzen diozu irakurketari?**

Ez, egun hauetan *Soy montaña* liburua bukatu dut, baina urte asko neramatzen ezer irakurri gabe, *El principito* irakurri nuenetik...

### **Musikazalea zara?**

Bai, asko, eta denetik entzuten dut. Cobardes izan da zuzenean ikusi dudana azken taldea.

### **Zer moduz moldatzen zara sukaldetan?**

Ondo, etxean ni arduratzen naiz koxinatzeaz. Jateko orduan ere, dena gustatzen zait, baina aukeran, oso gustura jaten dut arrain goxo bat: zapoa, erreboiloa...

### **Zure bertute bat?**

Oso adeitsua naizela uste dut...

### **Akatsa?**

**"Duela hiruzpalau uda gurasoak oporretan eraman nituen eta egun ahaztezinak igaro genituen"**

**"Ederra litzateke iraganera bueltatzea gaur egun dakiguna jakinda..."**

Kostatzen zaidala ezagutzen ez dudana pertsona batekin hitz egiten hastea, eta oso perfektionista naizela.

### **Eguneko zure momentua...**

Ohean etzaten naizenean, leher eginda....

### **Puntuala zara?**

Bai, ordua baino lehenago heldu ohi naiz.

### **Erraz haserretzen zara?**

Aurrean dudana pertsonaren arabera, baina gehienetan pazientzia daukat.

### **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Zintzoak ez diren pertsonak, askotan segituan antzematen zaie...

### **Eta zerk barrea eragin?**

Semeordeak egiten dituen tontakeriek, esaterako.

### **Zure bizitzako egunik zorionsuena?**

Duela hiruzpalau uda gurasoak bungalow batera eraman nituen, Galiziako kanpin batera, uda elkarrekin pasatzeko. Egun ahaztezinak izan ziren.

### **Eta unerik gogorrena?**

Duela lau zapo urte, familia osoa Piriniotik bueltan furgonetan gentozela, lokartu egin nintzen eta auto-istripua izan genuen. Bizirik atera ginen, baina larria izan zen.

### **Iragana edo etorkizuna ikusi nahiko zenuke?**

Biak. Ederra litzateke atzera bueltatzea gaur egun dakiguna jakinda... Etorkizunak ere jakin-mina sortzen dit!

### **Zerbait egin ez izanaren pena daukazu?**

Ikus-entzunezkoekin zerikusia duen zerbait edo mendi-gidaria izateko ikasi ez izana...

### **Hartu duzun erabakirik zailena...**

Nahiago dut ez esan.

**Praba-Leku**  
Neopaindegia - Estetika




Probaleku 3, 1A  
Tel.  
943170542

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**




Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44



**Jon Albizu**  
**Ainhoa M. Goitandia**

Extremadura zeharbidea z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Tel.: 943 174 505

**solozabal**  
**tabakoak**



torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
enter@informaticaenter.com

# 1958

E R M U A

Erdikokalen erretratatu zituzten Victor Arrieta eta Alejandro Gandiaga, azken honen eta Andresi Arrasateren Rosina alabarekin, bi ahizpetan nagusia.



# 1928

M A L L A B I A



Argazki hau duela ia 100 urte atera zen, Malletxebarri baserri aurrean, eta bertan baserri horretako familia ageri da: Maria Luisa Milikua, Dominga Milikua, Rosario Milikua, Cresencia Milikua, Tomasa Milikua, Julia Milikua, Margari Milikua, Candida Angiozar, Benigno Milikua, Paulino Milikua, Petra Milikua eta Jesusa Milikua. Txakurra Txanberlain deitzen omen zen.

Paulinoren emaztea, Bonifacia Angiozar, Benignok bi hilabete zituenean hil omen zen, eta bere ahizpa Candida amaordea izan zen.

BAR  
JUBILETXXE  
ERMUA

Hemen eskatu!

**LEIRE RASCO**  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)

## IRAGARKI LABURRAK

Garaje itxia salgai,  
Valdespinako Markesaren  
parkean (48. zenbakia).  
© 652 70 10 75  
© 943 17 48 19.  
Esperanza.

Neska eskaintzen da etxeak  
edo peorak garbitzeko,  
eta pertsona nagusiak  
zein umeak zaintzeko.  
Esperientziarekin.  
© 686 52 04 73, Maria.

Neska euskalduna  
eskaintzen da haurrak  
zaintzeko, goizez  
zein arratsaldez.  
Esperientziarekin eta  
magisteritza ikasketekin.  
© 648 625 209.

Haurrak zaintzeko  
neska eskaintzen da,  
esperientziaduna eta Haur  
Hezkuntzan graduatua.  
© 685 584 587



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com  
Azken eguna: **Urtarrilaren 24a.**




**Abenduaren 29an**  
Zorionak **Oscar!!!** Ondo  
pasa zure egunean. Asko  
maite zaitugu. Muxu  
erraldi bat Lucia, Libe eta  
amatxoren partez.



**Abenduaren 28an**  
Zorionak **Lea!!!** 3 urtetxo!  
Segi etxeko poztazuna  
izaten! Patxo haundi bat.



**Urtarrilaren 2an**  
Zorionak **Laida,** 10 urte  
borobil! Gozatu zure  
egunaz, neska handi!  
Musu asko etxeko guztion  
partez, batez ere, Inharren  
partez.



### SUJIKO

#### Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean 1etik 9ra bitarteko zenbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zenbakiaren baturak zirkulu barruan agertzen den zenbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

#### Erantzuna:



- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitritxa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

**MUSIKA  
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00  
albokamusikaeskola@hotmail.com

## Infreñu Taberna

**Kardenal Orbe plaz**  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)

PROTECCION LABORAL  
PLAN BARRERAKO  
ORDURA

**Goienkale kalea (Ermua)**  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...  
...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Asteartetik ostiralera  
00-12:00 15:00-19:00  
arunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

## Silvia peluqueria

688819336

**ZINEA**

**Hilaren 4tik 6ra:**

Zehaztu gabeko filmeak.

**Hilaren 11tik 13ra:**

Zehaztu gabeko filmeak.

**Hilaren 18tik 21era:**

Zehaztu gabeko filmeak.

**Hilaren 25etik 27ra:**

Zehaztu gabeko filmeak.

Ermua Antzokian.

Hainbat ordutegi.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 2:**

Zehaztu gabeko filmea.

**Hilak 9:**

Zehaztu gabeko filmea.

**Hilak 16:**

Zehaztu gabeko filmea.

**Hilak 23:**

Zehaztu gabeko filmea.

**Hilak 30:**

Zehaztu gabeko filmea.

Ermua Antzokian.

20:30ean.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

Laguntzailea: Mudo-drogot  
cinematografo.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 12:**

Zehaztu gabeko filmea.

**Hilak 19:**

Zehaztu gabeko filmea.

**Hilak 26:**

Zehaztu gabeko filmea.

Ermua Antzokian.

17:00etan.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

**MUSIKA**

**Hilak 17:**

Opera proiektzioa: Giacomo  
Pucciniren "Turandot".  
20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 8 €.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

**Hilak 18:**

Blues kontzertua: The Fale  
Cousins.

20:00etan.

Lobiano Kulturgunean.

Sarrera: 10 €.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

**Hilak 31:**

Kontzertua: María José  
Llgero.

20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrerak: 15 €.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ANTZERKIA**

**Hilak 24:**

"Malditos tacones",  
Luisa Martín eta Olivia  
Molinarekin.

20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 15 €.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

**ERAKUSKETA**

**Urtarrilaren 20tik**

**otsailaren 2ra:**

Dibulgaziozko erakusketa:  
"Erresistentzia elikatzen".  
Saharar herriaren  
proposamena elikadura  
hobetzeko.

Lanegunetan 18:00etatik  
20:00etara.

Antolatzailea: SEADen Lagun  
Elkartea.

**UMEENTZAKO  
EKITALDIAK**

**Hilaren 4ra arte:**

Gabonetako Haur Parkea:  
puzgarriak, ohe elastikoak,  
ludotekak, bideo-kontsolak,  
jumping, tailerrak...  
11:00etatik 13:00etara eta  
de 16:00etatik 20:00etara.  
Sarrera: 2 €. Antolatzailea:  
Ermuko Udala.

**Hilak 4:**

Haur eta gazteentzako  
kontzertua: "Goazen  
11.0", Pausokaren eskutik.  
12:00etan eta 16:00etan.  
Ermua Antzokian. Sarrera:  
6 €. Antolatzailea: Ermuko  
Udala.

**Hilak 5:**

Errege Magoen Kabalgata.  
18:00etatik aurrera. San  
Lorenzo ikastetxetik hasita.  
Laguntzailea: Ermuko Kultur  
zentruak eta Te gusta la ruta  
Ermua.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 26:**

Extremadurako txarri-  
boda. 10:00etatik  
aurrera. Extremadurako  
Zentroan. Antolatzailea:  
Extremadurako Kultur  
Zentroa.

Patxi López



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**


**Otro Plan**  
como en casa  
Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan  
espezialistak  
*Mayte*  
VI Centenario 5 - ERMUA  
943 172 412

**PRO**  
arraindegia  
  
**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**  
Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
**Valle**  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
**TOLDOS Y PERSIANAS**

- Toldoak	- Manparak
- Ostalarizarako muntaiak	- Seguritasun pertsianak
- Pertsianak	- Pertsiana dekoratiboak
- Instalakuntzak eta konponketak	- Estoreak
- Motorizazioa	- Eitxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixu 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

**ERROTULAZIOA**  
**ROTEK**  
R Ó T U L O S

Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak  
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak  
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36  
[www.rotekrotulos.com](http://www.rotekrotulos.com)

**ROTEK**  
**LED PANTAILAK**

**ITURGINTZA**  
**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**

**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
[info@palaciosfontaneria.com](mailto:info@palaciosfontaneria.com)  
[www.palaciosfontaneria.com](http://www.palaciosfontaneria.com)

**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

**ELEKTRIZITATEA**

**ELECTRICIDAD**  
**BETA**<sup>CB</sup>  
**ARGIZTAPENA**  
**ELEKTRIZITATEA**

· Proiektuak  
· Instalazioak  
· Erreformak

· Berokuntza  
· Gaueko tarifa  
· Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea  
ERMUA

**943 17 65 25**  
**656 70 23 60**

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

**OSTEGUNERO, 19:15 ETAN  
SAN ANTONIO ERMITAN**



# ARTARRAI MT



**600 BAZKIDE  
BAINO GEHIAGO**



**MENDIAK  
BATZEN GAITU**

